

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 634/2016 Erabakia, urriaren 4koa, onartzen duena lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea Oiongo Udalarekin, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz

Arabako Foru Aldundiak eta Oiongo Udalak uste dute axolazkoa dela elkarlanean jardutea jarduera ekonomikoaren gaineko zerga (JEZ) eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ikuskatzea dela-eta.

Herri administrazioen arteko lankidetzaz printzipioa, besteak beste, zenbait arau jasotzen dute, hala nola 30/1992 Legeak, (azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena). Izan ere, lege horrek 4.1.d) artikuluan ezartzen du ezen administrazioen arteko harremanak gidatu behar dituen printzipioetariko bat dela erakunde leialtasuna, zeinaren bertutez "bakoitzak, bere eremuan, lankidetzaz eta laguntza aktiboa eskaini beharko ditu, beste administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez baliatzeko galdegiten diotenean."

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak (7/1985 Legea, apirilaren 2koa) 106.3. artikuluan ezartzen du toki erakundeak eskudunak direla euren zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, baina atea zabalik uzten du eskumen horiek beste administrazio batzuek bete ditzaten lankidetzaz formulak erabiliz.

Lankidetzaz horren ezaugarri nagusia da borondatezkoa dela, eta, hori bideratzeko, behar diren administrazio partzuergo edo hitzarmenak izenpetu behar direla. Formula nagusia hitzarmena da, zeren partzuergoa eratzeak beharrezkoa baita lankidetzaz ezin formalizatzea hitzarmen bidez; gainera, partzuergoa eratzeak, beharrezkoa da eraginkortasun ekonomikoaren aldetik baliabide ekonomikoak efizientzia handiagoz esleitzeko aukera ematea.

Tributuen arloan, Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), 8. artikuluan, udal erakundeen eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bidezko lankidetzaz aipatzen du, tokiko tributuak eta toki erakundeen zuzenbide publikoko gainerako diru sarrerak kudeatu, ikuskatu eta biltzearen arlokoa.

Bestalde, Arabako Zergen Foru Arau Orokorak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa), 5. artikuluan 3. idatz-zatian, aukera ematen du toki erakundeen eta foru aldundiaren arteko zergak aplikatzeko lankidetzaz formulak ezartzeko.

Esparru juridiko hori eta Udalak esleiturik dituen eskumenen kudeaketaren eraginkortasuna dira kausa jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzearen arloan Arabako Foru Aldundiaren eta Oiongo Udalaren arteko hitzarmen bidezko elkarlana justifikatzeko.

Kontuan hartuz 52/1992 Foru Arauaren 8.7 artikuluan xedatutakoa (abendua 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa), zeinak ahalmena ematen baitio Diputatuen Kontseiluari bere eginkizun betearazlea baliatuz lankidetzaz hitzarmenak egiteko Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego, probintzia eta herri administrazioekin.

Ikusirik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Haren bidez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Oiongo Udalaren artean, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeari buruz. Hitzarmena erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari hitzarmena bera eta hitzarmena betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Gasteiz, 2016ko urriaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ